

ZER DA TOKIKO AGENDA 21?

Tokiko Agenda 21 udalerrietan iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko erabiltzen den tresna da.

Zentzu honetan, Tokiko Agenda 21-a, ingurumen, ekonomi eta politika sozialak integratzen ditu, garapen iraunkorreko irizpideekin bat. Eredu honen garapena, oredezkari politiko, udal-teknikari eta herritarren parte-hartze eta eztabaida prozesuari esker sortzen da.

Prozesu honen helburua, herritarren bizi-kalitatea eta udal kudeaketaren hobekuntza lortzea da.

Horretarako, lehenengo eta behin udalerrriaren egoera aztertzeko DIAGNOSTIKOA egin behar da, ondoren EKINTZA PLANA garatu ahal izateko.

- DIAGNOSTIKO dokumentua. Ingurumen, sozial eta ekonomi ikuspegitik egindako ikerketa sakona da, udalerrriaren benetako errealitatea ezagutzeko helburuarekin. Bertan bizi diren pertsonen ezagupenei esker, udalerrriaren egoera hobeto ezagutzean datza. Hau da, udalerrriaren egoeraren "argazkia" da, ingurumen, sozial eta ekonomi ikuspuntutik, udalerrriaren eta bertan bizi diren herritarren etorkizun eredurik egokiena definitu ahal izateko.

- EKINTZA PLANA. Diagnostikoaren emaitzetan oinarrituta, datozen urteotan udalerrian lan egiteko irizpideak bilduko dituzten Lerro Estrategikoak jasotzen ditu Ekintza Planak.

- HERRITARREN PARTE-HARTZEA. Prozesu honetan ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea bermatzea. Beraz, oso inportantea da herritarrekin komunikatzeko bide aproposak erraztea, haien ekarpen eta iritziak jaso ahal izateko. Helburu honekin, jasangarritasun Batzordeak eta herritarren parte-hartze Foroak antolatzen dira.